



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

EUSKAL HIZKUNTZALARITZA ETA FILOLOGIA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterraren helburu nagusia ikertzaileak trebatzea da, hainbat ikuspegitatik gai izan daitezen euskal hizkuntzaren edo literaturaren gai zehatz bati buruz ikertzeko. Gai horietan sakontzeko formakuntza eskainiko zaie eta modu profesionalean aritu nahi duten ikasleak bideratuko dira hala doktoretza-tesia egiteko nola ikerlan akademikoak burutzeko.

Horretarako, ikerlan linguistiko-filologiko bati ekiteko behar diren bitartekoak, trebakuntza eta ereduak eskainiko zaizkio ikasleari, ikerlan esperimentalak ontzeko gaitasuna eta metodoak ere garatuz. Horri ekingo zaio euskararen inguruko ikerketetatik abiatuta, baina beste hainbat hizkuntzaren inguruko ikerlanak ere aurkeztuta. Era honetan ikasleek gorentasuneko maila zientifikoa lortuko dute.

SARBIDEA

Ohiko sarbidea Euskal Filologiako lizentziatura edo Euskal Ikasketen gradua da. Hala ere, Batzorde Akademikoak sarbidea baimenduko die beste hizkuntza baten inguruko ikasketetatik eta, oro har, masterreko adarrekin zerikusia duten gradu edo lizentziaturetatik datozen ikasleei.

Masterra bost ikerketa-lerro edo adarretan dago egituratuta: Hizkuntzalaritza diakronikoa eta euskal filologia, Euskal gramatika, Euskal dialektologia, Euskal hizkuntzalaritza aplikatua eta Euskal literatura. Ikasleak egiten duen hautuaren arabera, alor batzuen espezializazioa eskura dezake ala espezializaziorik gabeko trebakuntza orokorragoa hauta dezake (ikus xehetasun gehiago behean, Prestakuntza Programa atalean).

Bestalde, mugikortasunaldi baten ondoren, master honek titulazio bikoitza eskuratzeko aukera eskaintzen du, Université Bordeaux-Montaigne-ko Master Études Basques-ekin sinatutako hitzarmenari esker. Masterrak praktikak egiteko aukera ere eskaintzen du, adibidez, argitaletxeetan.

IRTEERA PROFESIONALAK

Master honetako egresatuek lan egin ahal izango dute ikertzaile gisa, bertoko eta nazioarteko ikerketa-guneetan; irakasle-ikertzaile gisa unibertsitatean; ikastetxeetako irakasle; hizkuntz normalizazio eta plangintzako aditu, edota hizkuntzaren industriekin lotutako aditu gisa (hizkuntz prozesamendua, itzulpengintza, hizkuntz teknikaria, hedabide eta argitaletxeetako aholkularitza lanetan). Master hau eskuraturik, ikasleak doktoretza-tesia egiteko aukera du.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:	Letren Fakultatea (Vitoria-Gasteiz).
Irakaskuntza mota:	Presentziala. Online sinkronoa.
Hizkuntza:	Euskara. Mintegiak beste hizkuntza batean izan daitezke.
Gutxi gorabeherako prezioa:	1.550-1.750 euro.
Egutegia:	Irail amaieratik apirilera, goizez edo/eta arratsaldez, aukeratutako ikasgaien ordutegiaren arabera.

Goiz eta arratsaldeko txandak urtero aldizkatzen dira, hortaz, masterra bi urtean egin nahi izanez gero, eskola saioetara goizez bakarrik ala arratsaldez bakarrik joanda egin daiteke.

IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1 (urte bitan ere egin daiteke, 1. urtean gutxienez 27 ECTS matrikulatuz gero, hots, 9 ikasgai)

Nahitaezko Gaiak 15 ECTS (5 ikasgai)	Hautazko gaiak 27 ECTS (9 ikasgai)	Master Amaierako Lana 18 ECTS kreditu	Guztira 60 ECTS kreditu
--	--	---	-----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezkoak:

- Hizkuntzalaritza Diakronikoaren eta Euskal Filologiaren Oinarriak I
- Gramatikaren Oinarriak I
- Dialektologiaren Oinarriak I
- Euskal Literaturaren Oinarriak I
- Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Oinarriak I: soziolinguistika eta hizkuntz plangintza

Hautazkoak (9 hautatu behar dira orotara, baina baliteke guztiak ezin eskaintzea urte oro. Espezializazioa lortzeko, multzo bakoitzetik 6 hautatu behar dira):

Euskararen egituraren azterketa espezializazioa

- Hizkuntzalaritza Diakronikoaren eta Euskal Filologiaren Oinarriak II
- Hizkuntzalaritza Diakronikoari eta Euskal Filologiari buruzko Ikastaro Aurreratua
- Hizkuntzalaritza Diakronikoan eta Euskal Filologian espezializatzeko Mintegia
- Gramatikaren Oinarriak II
- Gramatikari buruzko Ikastaro Aurreratua
- Gramatikan espezializatzeko Mintegia
- Dialektologiaren Oinarriak II
- Dialektologiari buruzko Ikastaro Aurreratua
- Dialektologian espezializatzeko Mintegia

Euskararen gaitasunaren eta ekoizpenaren azterketa eta erabilerak espezializazioa

- Euskal Literaturaren Oinarriak II
- Euskal Literaturari buruzko Ikastaro Aurreratua
- Euskal Literaturan espezializatzeko Mintegia
- Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Oinarriak II: eleaniztasuna eta irakaskuntza
- Hizkuntzalaritza Aplikatuari buruzko Ikastaro Aurreratua: Psikolinguistika
- Hizkuntzalaritza Aplikatuan espezializatzeko Mintegia

HARREMANETARAKO

Arduraduna:

Amaia Munarritz Ibarrola

Tel: 945 01 4390

Posta elektronikoa:

amaia.munarritz@ehu.eus

Idazkari teknikoa:

Vanesa del Corral

Tel: 945 01 3410

Posta elektronikoa:

vanesa.delcorral@ehu.eus

